



Bagatoz ikasleak



Bagatoz gurasoak



Bagatoz profesionalak

IKASTOLAK



Bazatoz?



Bagatoz!

Ikastolak gara, zurekin batera, Euskal Herri osoan euskarazko hezkuntza garatzen duen sare eraldatzailea. Egiteko ederrena dugu gure gain:



Biharko euskal herritarrek gaurtik hezten dituen herri ekimena gara.

Euskara eta euskal kultura.
Hezkuntza eraldatzailea eta integrala.
Pertsona guztiak eta pertsona osoak.
Kulturartekoa.



Komunitate kooperatiboa eta prestatua osatzen dugu ikasleok, familieek, langileek eta ikastolazaleok, jardun burujabe autogestionatuan. Biharko euskaldunak hezten dituen komunitatea gara.



Lankidetzan dihardugu euskalgintzarekin eta hezkuntzako eta gizarteko eragileekin.

Haur eta gazteen garapen pertsonal integrala. Euskaraz ardaztutako berdintasuna eta aniztasuna. Herrigintza eta gizartegintza aktiboa.

115 ikastolak osatzen dugu ikastolen sarea

Araba, Baxenafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Garaia eta Zuberoan aurkituko gaituzu eta, gure ikasleak bezala, era guztietakoak gara: txikiak, handiak, berriak, ez hain berriak... baina batzuk zein besteak, bagatoz lanera, heztera, eraldatzera, sustatzera, jolastera! **Bagatoz, zurekin batera!**


Ikastolarik zaharrenak *Pasaia Lezo* (Lezo) eta *Santo Tomas Lizeoa* (Donostia) dira, 1961ean sortuak. **Berriena**, *Zumaia* da (Zumaia), 2025ekoa.

Ikastolarik **handiena** *Arizmendi* da (Leintz bailara), 2.970 ikaslerekin. **Txikiena** *Xarnegu* (Bardoze), 18 ikaslerekin.

Iparralderen dagoen ikastola *Hatsa* da (Bokale). **Hegoalderen** dagoena, berriz, *Argia* (Tutera).

Ekialderen dagoen ikastola *Eperra* da (Sohuta). **Mendebalderen** dagoen ikastola, berriz, *Zubi Zaharra* (Balmaseda).

Aurkitu duzu zurea?



IKASTOLEN JAIK:

KILOMETROAK

Elgoibar-Urriak 5

NAFARROA OINEZ

Atarrabia-Urriak 19

HERRI URRATS

Senpere-Maiatzak 10

IBILALDIA

Bilbo-Maiatzak 31

ARABA EUSKARAZ

Amurrio-Ekainak 14

Somos las Ikastolas, una red dinámica que transforma la educación en euskera en todo el País Vasco:

1. Un proyecto comunitario y de futuro. Educamos hoy a las personas que mañana formarán la ciudadanía vasca.
2. Una comunidad cooperativa y auto-gestionada. Creamos entre todas y todos un modelo educativo basado en la participación y la corresponsabilidad.
3. Un espacio de colaboración. Trabajamos con los principales agentes educativos y sociales para fortalecer nuestra cultura y nuestra sociedad.

Nous sommes les Ikastolas, un réseau dynamique qui transforme l'enseignement en basque dans tout le Pays Basque:

1. Un projet communautaire et d'avenir. Nous éduquons aujourd'hui les personnes qui formeront demain la population basque.
2. Une communauté coopérative et autogérée. Nous créons à nous toutes et tous un modèle éducatif basé sur la participation et la coresponsabilité.
3. Un espace de collaboration. Nous travaillons avec les principaux acteurs éducatifs et sociaux pour renforcer notre culture et notre société.

Marka berria estreinatu dugu ikastolen sarean.

Aurrerantzean, aldamenean ikusten duzun hau izango da gure marka. Euskal gizartea etengabe aldatzen da, gure haur eta gazteen hezkuntzari erronka berriak jarritz. Ikastolek ilusioz heltzen diegu erronka berriei, ikuspegi berrietatik saiatuz, egitasmo berriak sortuz eta erantzun berriak eskainiz. Horixe irudikatzen du marka berriak. Bagatoz indar berriz!



Bagatoz indar berriz

Bine ați venit la modelul educațional al școlilor ikastola!

سکولوں کے تعلیمی ماڈل میں خوش آمدید!

مرحباً بكم في النموذج التعليمي لـ ikastola